



GARBITANIA ZERO ZABOR S.M.ren ATEZ ATEKO BILKETA ZERBITZURAKO KOORDINATZAILEEN BEHIN BETIKO BEHARRAK OSATU ZEIN BEHIN BEHINEKO BEHARRAK ASETZEKO LAN POLTSA ERATZEKO OINARRIAK

1.- OINARRIEN XEDEA

Oinarrien xedea Garbitania Zero Zabor S.Mren **atez ateko bilketa zerbitzurako koordinatzaileak kontratatze eta lan-poltsa eratzeko** aukeratze prozesua arautzea da, zerbitzu premiak asetzeko, unean uneko lanpostu hutsak betetzeko, aldi baterako programak egiteagatik, eginkizunen pilaketagatik edo behin-behineko beharrak betetzeko.

Lanpostuak Udalhitzeko jasotakoari jarraituz, D sailkapen mailan (edo pareko C2 maila), eta 13. mailari dagokion soldata-maila du. Koordinatzailearen urteko ordainkizun gordina 36.984,30€ izango da. Soldata hori kontzeptu guztiengatik izango da (baliagarritasun konpentsazioa barne), eta 12 hileko ordainketatan eta aparteko bitan, abenduan eta ekainean, egingo da.

Une honetan lanposturik hutsik ez badago ere epe ertainean hutsik suerta daitezkeen lanpostuak lan poltsa honetatik osatuko dira. Nolanahi ere, Garbitania Zero Zabor SMk zehaztu beharko du lanaldia, betiere lanpostuaren izaeraren eta premien arabera.

Hautaketa prozesuan parte hartu duten izangaiek lan poltsa eratuko dute, lortutako puntuen arabera. Lan poltsa hori erabili ahal izango da Garbitaniak izan litzakeen aldi baterako zein behin betiko lan premiak betetzeko.

2.- LAN BALDINTZAK ETA EGINKIZUNAK

Lansaioa Garbitania Zero Zabor S.M.k zehaztutakoa izango da, zerbitzuaren premien arabera. Lanegunak eta ordutegia Garbitania Zero Zabor S.M.k urtean-urtean finkatutakoak izango dira, betiere lanpostuaren izaeraren, urtaroaren eta zerbitzuaren premien arabera.

Hasi aurretik, Garbitaniak aurreikusitako formakuntza saioetan derrigorrez parte hartu beharko dute. Formakuntza saioak espezifikoki bilketarako erabiltzen diren kamioien mantenuari, mekanikari zuzendurikoak eta lan arriskuen prebentzioari zuzendurikoak izango dira.

Deialdi honen xede den lanpostuaren eginkizunak, besteak beste, ondoko hauek dira:

- Garbitaniak atez ateko bilketa zerbitzua eskaintzen duen udalerrietako koordinazio pertsonal eta logistikoa. Bilketa urtean 365 egunetan egiten denez asteburuetarako aldiak estali beharko direlarik. Bilketaren koordinazioaren barruan ezustekoei erantzutea litzateke adar nagusietako bat.
- Lan arriskuetako prebentzio arauak, barne protokolo eta erregistroak, barne arauak e.a. betearazi. Bai biltzaile zein informatzaileenak.
- Koordinatu beharreko ekipoak biltzaileenak eta informatzaileenak izango lirateke.
- Biltzaile zein informatzaileen lan egutegiak antolatu. Ekipoen optimizazioa bilatuz.



- Biltzaileen orduen kontrola eta jarraipena.
- Bilketarekiko intzidentziak aztertu eta sistematizatzeko proposamenak ekipo teknikora igorri.
- Bilketarako erabiltzen diren baliabideen mantenuaren inguruko jarraipena eta kontrola.
- Logistikari dagokionez tailerren gestioa, kamioien koordinazioa, urgentzien konponketak bideratzea.
- Eskatzen zaion beste edozein lan, bere kategoriari dagokiona.

3.- BALDINTZAK

a) Adinez nagusia izatea.

b) Eskola-graduatu, 1. Mailako Lanbide Heziketa edo horren mailakoa.

c) Europar Batasuneko kide diren estatuetak baten herritartasuna izatea, edo, Europar Batasunak egindako eta Espainiako Estatuak berretsitako Nazioarteko Itunei jarraiki, langileen zirkulazio askea aplikatzen zaion estaturen bateko herritarra izatea.

Parte hartu ahal izango du, baita ere, Europar Batasuneko kide diren estatuetak herritarren ezkontideak, beti ere zuzenbideko banaketarik gabekoak badira; baita ere bere ondorengoak eta bere ezkontidearenak, baldin eta zuzenbideko banaketarik gabekoak badira, eta ondorengo horiek hogeita bat (21) urte baino gutxiagokoak badira, edo adin horretatik gorakoak, baina bere kontura edo emantzipatuta bizi direnak.

Era berean, parte hartu ahal izango dute Espainiako estatuan bizi eta aurreko paragrafoetan sartu gabe dauden atzerritarrek. Hauek aukeratuak izango balira, kontratuaren objektu den jarduera burutzeko administrazioaren baimena dutela frogatu beharko dute, aipatutako kontratua egin baino lehen. Diziplinazko espedientearen bidez inongo Administrazio Publikoren Zerbitzutik baztertua ez izatea, eta funtzio publikoak betetzeko ezgaiturik ez egotea.

d) Lanpostuen eginkizunak normaltasunez betetzea galaraziko dion gaixotasunik nahiz muga fisiko edo psikikorik ez izatea.

e) Bateriaezintasunik edo ezgaitasun legalik ez izatea, Herri Administrazioaren Zerbitzuan dagoen pertsonalaren bateraezintasuna arautzen duen abenduaren 26ko 53/1984 Legean xedatutakoaren arabera. Dena den, kargu publiko edo jarduera pribatu bateraezina burutzen ari direnek aukeratzeko eskubidea erabili ahal izango dute, aipatutako legearekin bat etorriz.

f) 2. mailako hizkuntza eskakizuna izatea.

g) B-C motako gida baimenak edo baliokideen jabe izatea eta C gidabaimenari dagokion CAP ziurtagiria indarrean izatea.

h) Mekanika ezagutzak baloratuko dira.



Oinarri honetan zerrendatutako baldintzak, eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean bete beharko dira eta lanpostuaren jabetza eskuratu bitartean mantendu. d) eta e) azpiataletan ezartzen diren baldintzak bere unean egiaztatu beharko dira.

4.- INSTANTZIAK

Izangaiek 3. oinarrian jasotako baldintza guztiak betetzen dituztela adierazi beharko dute hautaketa prozesuan parte hartzeko aurkezten den eskabidean. (I. eranskina).

Eskaera horiek Garbitania Zero Zabor S.M.ko gerentziari zuzenduko zaizkio eta Garbitaniaren bulegoetan (Lastaola Poligonoa 3. A-12 eraikina Ereñotzu Auzoa. 20120 Hernani) aurkeztu beharko da 9:30etatik 14:00etara edo korreo zertifikatu bidez bidali, erreferentzia gisa ERREF. Koordinatzailea Garbitania zehaztuaz. Hautaketa proba hauetan parte hartu nahi dutenek deialdi honen I. Eranskin gisa adierazten den eredia bete beharko dute. Eskaera aurkezteko epea 10 lanegun balioudunekoa izango da, zabalkunde gehien dituzten bi egunkarrietan deialdia argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. (otsailaren 6tik 17ra biak barne).

Correos bulegoetan aurkeztutako instantziak, bertan entregatuko dira, horiek aurkezteko epea amaitu baino lehen, gutun-azal ireki batean, Correoseko langileek data eta zigilu jartzeko. Bakarrik era horretan ulertuko da instantziak Correos bulegoan sartu zirela aurkeztu ziren egunean.

Hautaketa prozesuan parte hartzeko eskabideak ondoko baldintza hauek bete beharko ditu atzera bota ez daitezten:

a) Hirugarren oinarrian eskatutako baldintza bakoitza eta guztiak betetzen dituztela adierazi beharko dute izangaiek, betiere eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunari dagozkiola.

b) Eskabidearekin batera, ondoko agiriok erantsiko dituzte:

- Hautagaiaren pertsonalitatea eta gaitasuna egiaztatzeko dokumentazioa: nortasun-agiri nazionala edo baliokidea
- B eta C motako gida baimenaren (edo baliokidearen) kopia eta CAP ziurtagiriaren fotokopia indarrean.
- Deialdian parte hartzeko eskatutako tituluaren originala edo kopia konpultsatuak.
- *Curriculum Vitae*
- Hizkuntza eskabideak betetzen direla ziurtatzen duen agiri originala edo kopia konpultsatuak.
- Alegatutako merituen agirien originala edo kopia konpultsatuak.
- 3. Oinarriaren d eta e ataletan jasotako baldintzak aitorten bidez egiaztatu ahal izango dira.



Alegatzen diren merituek egiaztatzen dituzten dokumentuak parte-hartzeko eskaerarekin batera aurkeztuko dira deialdian ezarritako epean. Beranduago aurkezten direnak ez dira baloratuko.

Eskaerak aurkezteko epea amaitu eta gero, Hautaketa Batzordeak eskaerak eta perfilen egokitasuna aztertuko ditu.

5.- HAUTAKETA PROZEDURA

Hautagaiak ondorengo prozedura jarraituz izango dira aukeratuak. Ariketa bakoitzerako deialdi bakarra egingo da.

Garbitaniak ariketak egiteko deialdian jarritako egunean, lekuan eta orduan agertzen ez diren izangaiak –baita ezinbesteko arrazoiengatik bada ere, legeak babesten dituen kasuak salbu-, hauta-prozesutik kanpo geratuko dira erabat.

Hautaketa prozesua bi alditan egingo da. Lehenengo aldian 40 puntu emango dira gehienez eta bigarrenean 60.

A. Lehenengo aldia: Curriculumeko merituen balorazioa. Eskainitako lanpostuarekin harremana duten prestakuntza eta esperientzia baloratuko dira. Jarraian xehatutako moduan:

a. Esperientzia profesionala:

- i. Bete nahi den postuarekin antzekotasunak dituzten postuetan lan egindako hilabete bakoitzeko 0.50 puntu emango dira. (langile burua, brigada burua, enkargatu...). Gehienez 15 puntu.
- ii. Atez ateko sistemaren inguruan zer ikusia duten arloetan lan egindako hilabete bakoitzeko 0.25 puntu emango da. Gehienez 7.5 puntu.
- iii. Kamioi zein ibilgailuen mekanika arloetan lan egindako hilabete bakoitzeko 0.25 puntu emango da. Gehienez 7.5 puntu.

b. Prestakuntza

i. Hondakinen inguruko (bilketa, tratamendua, sistemak e.a.) zein kategoriarekin edo atez-ateko bilketa sistemarekin zuzenean zerikusia dutenak honela baloratuko dira:

1. 20 ordu arte: 1 puntu
2. 21 orduetik 50 ordu arte: 1.5 puntu
3. 51 orduetik 80 ordu arte: 2 puntu



4. 81 ordutik 150 ordu arte: 2.5
 5. 150 ordutik gora: 3 puntu
- ii. Prestakuntza honengatik gehienez 5 puntu emango dira.
- iii. Ibilgailuen mekanikarekin zerikusia dutenak honela baloratuko dira:
1. 20 ordu arte: 1 puntu
 2. 21 ordutik 50 ordu arte: 1.5 puntu
 3. 51 ordutik 80 ordu arte: 2 puntu
 4. 81 ordutik 150 ordu arte: 2.5
 5. 150 ordutik gora: 3 puntu
- iv. Prestakuntza honengatik gehienez 5 puntu emango dira.
- v. Ez dira baloratuko postua betetzeko eskatzen diren titulazio akademikoak, ezta horiek eskuratzeko ikastaroak ere.

B. Bigarren aldia: Azterketa. **Derrigorrezkoa eta baztertzaila izango da.** Azterketa lanpostuaren eginkizun eta edukiei buruzkoa izango da. Beharrezkoa ikusten den kasuan, hautaketa batzordeak kanpo entitate pribatu zein profesional independenteengan jo lezake eginkizun hau burutu eta atal hau balora dezan.

Guztizko puntuazioan berdinketarik izatekotan, balio handiagoa emango zaio azterketan lortutako emaitzari.

6.- ONARTUEN ZERRENDA ETA KONTRATATZEKO PROZEDURA

Hautaketa batzordeak, ariketa bakoitza kalifikatu ondoren, hautaketa prozedura gainditu duen izangaien hurrenkera argitaratuko du. Ariketa bakoitzaren behin-behineko puntuazioaren aurka egiteko 3 laneguneko epea emango da, eta epe horretan erreklamaziorik egongo ez balitz, emaitza behin betikoa izango da automatikoki.

Azken emaitzak erreklamatzeko epea bukatu eta gero, Garbitaniak hautaketa gainditu duten izangaiekin lan arriskuen prebentzio eta segurtasunaren inguruko formakuntza ikastaro antolatuko du. Parte hartzera derrigortuak egongo dira izangai guztiak. Ikastarora bertaratzen ez den hautagaiak, Garbitanian formakuntza saio berri bat antolatu artean ezin izango du Garbitaniarekin kontraturik izenpetu.



Hautaketa batzordeak, hautaketa gainditu eta prebentzio eta segurtasun arloko formazioa jaso duten izangaiekin puntuazioaren arabera lan poltsaren hurrenkeraren proposamena egingo dio Garbitaniako Administrazio Kontseiluari, bertan behin betikoz onartuko direlarik.

Lan poltsa honen kudeaketa Garbitaniako barne arauen arabera burutuko da.

7.- HAUTAKETA BATZORDEA

Hautaketa Batzordea hurrengo kideek osatuko dute:

- Garbitaniako ingurumen teknikari batek
- Garbitaniako koordinatzaile batek
- Garbitaniako langileen ordezkari batek.
- Garbitaniako gerenteak
- Garbitaniako kontseiluko kide batek
- Usurbilgo udaleko obra eta zerbitzutako zinegotziak.

Hautaketa batzordeari dagokio:

- Curriculum eta azterketa baloratzea (azterketa kanpo entitateek egitea batzordeak horrela erabakitzen duenean salbu)
- Oinarri hauek interpretatu eta zalantzak argitu
- Administrazio Kontseiluari kontratatu beharreko hautagaia proposatu

Batzordea proba guztiak egiteko eta baloratzeko behar den haina aldiz bilduko da eta Garbitania Zero Zaborreko gerenteak edo honek eskuordetutako pertsonak bilera guztietako akta egingo du. Batzordeko kide guztiek sinatuko dute akta.

8.- KONTRATAZIOA

Hautagaiek bi egun baliodunetan gaitasuna egiaztatzeko eta kontratua egiteko beharrezkoak diren bestelako dokumentazioak aurkeztu beharko du, hautatua izan dela jakinarazten zaionetik kontaktzen hasita.

9.- FROGALDIA, KONTRATUAREN IRAUPENA, KONTRATUA ETETEA ETA KONTRATUA AMAITZEA

Kontratuak 6 hilabetetako frogaldia izango du. Garbitaniak euren kontratuak etetea erabaki ahal izango du, eta beraz, kontratu honen eraginen iraupena Garbitaniak etetea erabakitzen duen arte igarotako denbora izango da. Frogaldia amaituta, Garbitaniak frogaldia gainditu dutenekin beharraren arabera kontratuak sinatuko ditu. Behin betiko postu bat denean 2 urte ondoren kontratu finkoa egingo zaio.

Koordinatzaileak kontratua bertan behera utzi dezake, baina kasu horretan Garbitaniako gerenteari hilabete lehenago abisatu beharko dio idatziz. Ez badu epe horretan abisatzen, sozietateak kalte-ordaina jasotzeko aukera izango du, bete ez den epearen soldaten baliokidea.



1382/1985 Errege-Dekretuan ezarritako bereizitasunak kontuan hartzeaz gain, Langileen Estatutuan ezarritako arrazoiengatik eta hor ezarritako prozeduren bidez ere amaitu ahal izango da kontratua.

10.- DATUEN BABESERAKO LEGEA

Datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Legeari jarriki, B75024182 IZF duen GARBITANIA ZERO ZABOR S.M.k jakinarazi nahi dizu, hautaketa prozesu honetan parte hartu duten pertsonen datu pertsonalak norbere oniritziarekin bildu direla, eta giza-baliabideen kudeaketarako beharrezkoa den fitxategi batean bilduak eta kudeatuak izango direla. Fitxategi horren ardura GARBITANIA ZERO ZABOR SM merkataritza-sozietateak du eta Datuetara sartzeko, horiek zuzentzeko, ezeztatzeko edo aurka egiteko eskubidea erabili nahi izanez gero bide hauek erabiltzeko aukera duzue: Lastaola Poligonoa 3. A-12 eraikina. Ereñotzu auzoa. 20120 Hernani, edo bidal ezazu mezu elektronikoa info@garbitania.eus helbidera.

Izaera pertsonaleko datuen babeserako legean ezarritakoaren haritik, Garbitania Zero Zabor S.M.k beharreko diren antolakuntzari dagozkion neurriak eta neurri teknikoak hartuko ditu, jasotako datuen izaera, teknologien egoera, eta izan daitezken arriskuak kontutan izanda, edozein izanik jatorria (gizabanakoa zein bitarteko fisiko zein naturaletatik etorria) datuen aldaketa, galera, baimenik gabeko aldaketa edo esku-hartzeak, ekiditeko eta izaera pertsonaleko datuen babesa bermatzeko.



I. ERANSKINA ESKABIDEA

| | |
|----------------------------|-------------------------------------------------------------------------------|
| SARRERA ERREJISTROA | GARBITANIAKO KOORDINATZAILEEN KONTRATAZIOA ETA LAN- POLTSA |
| | |

DATU PERTSONALAK

| | | | | | |
|---------------|--|-------------|--------------|-----------------------|--|
| Izen abizenak | | | | | |
| NA zkia: | | Jaioteguna: | | Telefonoa: | |
| Helbidea: | | | | Helbide elektronikoa: | |
| | | | | | |
| Herria: | | | Posta kodea: | | |

IKASKETAK

| |
|--|
| |
|--|

ESKAERA HONEKIN BATERA DOAZEN AGIRIAK

- N.A.N.-aren, B-C motako gida baimenen kopiak (edo baliokideak) eta CAP ziurtagiriaren fotokopia indarrean
- Deialdian parte hartzeko eskatutako tituluaren fotokopia
- Hizkuntz eskakizunaren egiaztagiriaren fotokopia (edo baliokide den titularena)
- Currikulum Vitae
- Eskabidean adierazi diren merezimenduak frogatzen dituzten dokumentuen fotokopiak, lehiaketa fasean balora daitezten

Behean sinatzen duenak, eskaera hau dagokion aukeratzeko prozeduran onartua izatea **ESKATZEN DU**, eta **BAIEZTATZEN DU**:

- 1) Bertan azaltzen diren datuak egiazkoak direla eta Oinarrietan eskatutako baldintzak betetzen dituela. Eskatutakoan agiri orijinal bidez zurituko dituela hitz ematen duelarik.
- 2) Pertsonal izaera duten bere datuak, prozesu honetan azaltzen den moduan tratatua izango den fitxategi batetan sartzea baimentzen duela.

Data _____
SINADURA